

# Familia anitzak

Alize Olazar Intxausti



# Helburuak

- Egungo Euskal Autonomi Erkidegoko geletan familiari eta bereziki familia aniztasunari ematen zaion trataera aztertzea.
- Egungo irakasleen eta etorkizuneko irakasleen pentsamoldeak aztertzea.
- Eskoletan bertan familia eta familia aniztasuna lantzeko dauden materialak aztertzea.
- Irakasleek edo etorkizuneko irakasleek familia aniztasunari buruz dituzten ideia, irudikapen edota aurreiritziak aztertzea.
- Gaiaren inguruan batzuk eta besteek jasotako formazioa aztertzea.



# Emaitzak

- Irakasleen %28,8k esan duela nahiko edo oso ados dagoela bere eskolan familia tradizionalen dekorazioa dagoela dion baieztapenarekin eta bere pareko familia ez tradizionalen baieztapenarekin, %30,5. Ikasleei dagokienez, %35,2k esan du nahiko edo oso ados dagoela bere eskolan familia tradizionalen dekorazioa dagoelarekin, baina %18,6 soilik egon da pareko baieztapenarekin ados familia ez tradizionalei buruz galdetzean.
- Aita ez egoteak ondorio kaltegarriak ditu seme-alaben garapenean baieztapenarekin irakasleen %1,7a eta ikasleen %11,2a egon da guztiz edo nahiko ados. Aitaren gaiarekin jarraituz, aitaren irudia beharrezkoa da haur bat behar bezain maskulinoa izan dadin baieztapenarekin irakasleen %16,9a eta ikasleen %5,6a egon da guztiz edo nahiko ados. Era berean, ama ez egoteak seme-alaben garapenari eragiten dio ezinbestean baieztapenari dagokionez, irakasleen %18,6a eta ikasleen %14,8a guztiz edo nahiko ados egon da.
- Norbere ezagutzari dagokionez, irakasleen %93,2 eta ikasleen %90,7 familia aniztasunean heztearekin guztiz ados egon dira. Baina ikasleen %5,6ek eta irakasleen %8,5k soilik uste zuten aniztasunean hezteko nahikoa formazio zutela eta ikasleek %0ek eta irakasleen %6,8k helburu horretarako nahikoa baliabide dutela.



# Ondorioak

- Familien aniztasunaren errekonozimendu eta behar bezalako lanketarako oraindik bide luzea dugula.
- Eskoletan familia aniztasuna lantzeko aukerei dagokienez emaitzek adierazi dute irakasleek aniztasuna lantzeko aukera gehiago daudela uste dutela eskolako dekorazioan ikasleek behatu dutena baino.
- Emaitzek irakasleen gehiengoak famili errealitatea behatu eta klasean lantzen dutela uste dutela adierazi dute, baina, ikasleen kasuan, erdiak baino gutxiagok behatu du hau egin dela.



# Ondorioak

- Morgado, Jiménez-Lagares eta González (2009) ikerketarekin alderatuz gero ikus daiteke guk lortutako emaitzak askoz hobekak direla. Beraz lehen begiradan badirudi gure komunitatea famili aniztasunarekiko nahikoa sentsibilizazio duen komunitatea dela. Halere testuingurua kontutan izan beharko genuke, konturatuaz Morgado eta kideen ikerketa 2009koa dela eta 12 urte pasa direla bertatik, beraz baliteke bai gizartean ikusmira zabaldu izana familia aniztasunaren aurrean.
- Ikasleek irakasleek baino aurreiritzi gehiago izan dituzte aita eta etxean dagoen ama seme-alaben garapenerako ingurune onenak direla adieraziaz, aita ez egoteak ondorio kaltegarriak dituela baieztatuaz, gay eta lesbianen seme-alabak guraso tradizionalekoetatik bereiziaz, eta gainera gay eta lesbianen hurrek gizartearen bazterketa nahiezean jasango dutela ere gehiago uste izanaz.

